



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

EKONOMIA  
ETA ENPRESA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE ECONOMÍA  
Y EMPRESA

# FINANTZAK ETA FINANTZA ZUZENDARITZA MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Esan daiteke finantzek eta horien gestioak balio estrategikoa dutela enpresa guztientzat. Aski onartua dago azken krisi ekonomikoaren jatorrian finantza arrazoi hutsak egon zirela, eta gerora, haien eragina ekonomiaren eta gizartearen gainerako eremuetara hedatu zela. Egungo finantza merkatuen konplexutasunak erronkak sortzen dizkie enpresei eta finantza erakundeei, eta horrek gero eta sofistikatuagoak izango diren finantza kudeaketako metodo eta tresna berriak erabiltzea eskatzen du, finantza arloan prestakuntza premia bereziak sortzeaz gain.

"Finantzak eta Finantza Zuzendaritza" masterrak enpresen finantza kudeaketara bideratutako prestakuntza eskaintzen du, finantza merkatuei buruzkoa. Lortu nahi dena da ikasleak gai izatea enpresen finantza errealitatea aztertzeko eta interpretatzeko, eta azterketa eta

interpretazio hori enpresa horiek beren jarduna burutzen duten finantza merkatuetan ere egiteko, enpresa errentagarritasuna hobetzea helburu duten eredu eta tresnarik egokienak aukeratu eta ezarri ahal ditzaten.

Horretarako, master honetan UPV/EHUko irakasleek elkarrekin lan egiten dute kanpoko irakasleekin, bai beste unibertsitate batzuetako irakasleekin, bai enpresa munduan eskarmentu handia duten profesionalekin. Irakasle aniztasun honen bidez masterrak oreka lortzen du kontzeptuen zurruntasunaren eta enpresen errealitatearen ezagutzaren artean.

Horrez gain, titulazio bikoitza eskuratu daiteke "Master en Management Financier" titulazioa eskaintzen duen Bordeleko Unibertsitatearekin (Bordeaux IV – Montesquieu) izenpetutako lankidetz hitzarmenari esker.

---

## SARBIDEA

---

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomiako, Negozioen Kudeaketako edo antzeko arloetako lizentziatura edo gradua, enpresen kudeaketako profila daukana.

Batzorde Akademikoak sartzeko baimena eman ahal izango die bestelako tituluak dituztenei.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Irteera profesionalek lotura dute finantza ezagutzak eskatzen dituzten lanpostuekin. Profil honen barruan sartzen dira ETEetako finantza sailen arduradunak eta enpresa handien finantza arloko lanpostuak (inbertsioen ebaluazioa, finantza arriskuen analisia eta estaldura, diruzaintzaren kudeaketa,

eta abar). Horrez gain, masterrean eskaintzen den prestakuntza eskatzen dute aholkularitzek, kontsultoretzek, inbertsio bankuek eta balore agentzia eta sozietateek. Halaber, masterreko prestakuntza bat dator banku komertzialetako enpresa sailletako langileen profilarekin.

---

## ONARRIZKO INFORMAZIOA

60 ECTS / ikasturte 1

<b>Eskolak emateko lekua:</b>	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bilbao).
<b>Irakaskuntza mota:</b>	Esolan bertakoa.
<b>Hizkuntza:</b>	Gaztelania.
<b>Gutxi gorabeherako prezioa:</b>	1.800-2.000 €.
<b>Egutegia:</b>	Urritik maiatzera, astelehenetik ostegunera, 16:00-20:00.

---

## IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

<u>ahitaezko Gaiak</u> 50 ECTS kreditu	<u>Proiektuak / Ikerketa-lanak</u> 10 ECTS kreditu	<u>Guztira</u> 60 ECTS kreditu
---	---	-----------------------------------

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Enpresaren ekonomi eta finantza-analisisa (5,25 ECTS)
- Analisi estrategikoa eta arriskuen gestioa (3,5 ECTS)
- Cash-Management (4 ECTS)
- Korporazio-finantzak (3 ECTS)
- Nazioarteko finantzak I (3 ECTS)
- Nazioarteko finantzak II (3 ECTS)
- Fusioak eta erosketak (4 ECTS)
- Finantza-arruskuen gestioa (4 ECTS)
- Finantza-instrumentuak eta burtsa-gestioa (7 ECTS)
- Finantza-merkatuak eta enpresa finantzaketa (4 ECTS)
- Banka eta enpresa harremanak (4 ECTS)
- Enpresen baioespena (5,25 ECTS)
- Master amaierako lana (10 ECTS)

---

## HARREMANETARAKO

**Arduraduna:** Jose Domingo García  
**Tel:** 946017017  
**Posta elektronikoa:**  
josedomingo.garcia@ehu.eus

---

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

université  
de **BORDEAUX**

